

ARTE ONDAREA


Artea nazioarteko adierazpen bat dugu, ez baitago artea ezagutzen ez duen herririk. Horra hor, munduan zehar anonimoki edo egile ospetsuek sortutako margo, eskultura, argazki, eraikin eta abarrekoak.

Obra horiek guztiek gure arte-ondarea osatzen dute. Handiak zein txikiak, artista bakar batek edo talde batek egindakoak, laikoak, erlijiosoak, aspaldikoak, guztiz berriak direnak, garestiak eta merkeak, doakoak, museoetan edo gure kaleetan daudenak.



Ortiz de Elgea, Zuhaitza

ESKOLAK MONUMENTU BAT ADOPTATZEN DU.



Izen hori zuen, 1992an, Europa osoan zabaldutako kanpainak.

Ikasleak eskolatik ateratzen dira inguruko arte-ondarea ezagutzeko eta estimatzen ikasteko.

Horretarako, eskola edo gela bakoitzak monumentu bat adoptatzen du, eta horren gaineko ekintzak antolatzen dituzte; gero, kanpainako beste partaideei aurkezten diete babestutako monumentu hori.



Pentsa ezazu zein diren zure inguru gertueneko monumentuak, eta ea kanpaina hori bezalako zerbait antola zenezaketen gelan.

- Eta ikastetxean?
- Eta beste ikastetxe batzuetakoekin?

LAN PROPOSAMENA:

Herrialde bat adoptatu!



- Margolaritza arloan, Nederlands txikia izan arren, oso herri interesgarria izan dugu historian zehar. Hango margolaririk ezagunenak dira, besteak beste, Jan van Eyck, Borch, J. Bosch (El Bosco), Haarlemeko eskolakoak batez ere Frans Hals Rembrant, Van Gogh eta Mondrian.

- Jarri taldeka eta bilatu informazioa eta irudiak.
- Amaieran ea asmatzen duzuen ezkerreko irudia nork egina den.

- Europako beste herrialde bat "adoptatu" eta gauza bera egin.



San Sebastian II
1998, Ameztoy


IRUDIEN BILA

- Lortu Ameztoyren lanen irudiak.
- Lortu Arcimboldoren lanen irudiak.
- Lortu J. Bosch-en lanen irudiak.

Eta erantzun:

Zein da hiru horien arteko harreman piktorikoa?

Europa irudietan




Bilatu irudiak eta kokatu Europako mapan.

1. Coliseo
2. Belem-eko Dorrea
3. Knossos + freskoak
4. Atomium
5. La pedrera
6. Londoneko bridge + Millenium
7. Towerhouse (Irlanda)
8. Vianden-eko gaztelua
9. San Esteban eliza (Austria)
10. Viipuri-ko Liburutegia
11. Reichstang (Berlinen)
12. Kiek in de K ok/Kannon tower (Estonia)
13. Rigako Pils gaztelua eta Katedrala
14. Vilnius-eko gaztelua (Lituania)
15. Varsoviako Segismundoren zutabea
16. Pragako Karlosen zubia
17. Bratislavako Gaztelua
18. Budapesteko Legebiltzarra
19. Lublianako Grad (Grand Fortea)
20. Eiffel dorrea
21. Kinderdijkeko Haize errotak Kopenhageko Rundertarn

MUSEOAK, ARTE FUNDAZIOAK ARTE BILTEGIAK DIRA

Bisita birtuala egin eta gero bat "adoptatu" gelakideei ezagutarazteko. Horren barruko obrarik interesgarriena(k) aurkeztu

- <http://rijksmuseum.nl>
- <http://www.louvre.fr/>
- <http://www.hermitage.ru/>
- <http://museoprado.mcu.es/home.html>
- <http://www.tate.org.uk/home/default.htm>
- <http://www.guggenheim-bilbao.es/idioma.htm>
- <http://www.eduardo-chillida.com/#>



Zein da zuen ustez artearen tokia? Hausnarketa egin eta erantzun: zein da artearen garrantzia zure udalerrian?